



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Mugalur proiektua: mugaldeetako
bizipenak eta mugaren iruditegiak
Euskal Herrian**

Elena Casiriain

109-116 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.13>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Mugalur proiektua: mugaldeetako bizipenak eta mugaren iruditegiak Euskal Herrian

Elena Casiriain
LISST-CAS (UT2J), GAIT (EHU)
elena.casiriain@univ-tlse2.fr

Laburpena

Mugalur proiektua, Euskal Herrian kokatua den Frantziar eta Espainiar Estatuaren arteko mugaren inguruko ikerketa da. Antropologiaren ikuspegitik, zazpi tailer parte-hartzailetan oinarritzen da eta muga zer den baita mugak zer egiten duen mugaldeetako biztanleei ikertzeko xedea du. 124 parte-hartzaileek mapak osatu dituzte. Muga, kontraesanaren eremua bezala irudikatua da, etengabeko mugimenduan, egoeren arabera agertu eta desagertzen dena, idekitzen edo ixten, eta memoriarekin jolasean ibiltzen dena ahaztuz edo ezin ahaztuz mugaren itxurak eta izaerak.

Hitz gakoak: Mugalur, muga, mugaldea, Euskal Herria, bizipenak, antropologia.

Abstract

The Mugalur research project focuses on the border between two states (French and Spanish) in the Basque Country. From an anthropological perspective, it is based on seven participatory workshops, with the aim of asking the inhabitants of the border area what a border is and what it does. The 124 participants of the seven workshops have created maps and based on these representations of the border, they are encouraged to think of the border as a place of contradiction - constantly in motion, appearing and disappearing depending on the situation, opening or closing, and playing with memory, forgetting or being unable to forget the forms and nature of the border.

Keywords: Mugalur, border, borderland, Basque Country, lived experiences, anthropology

1. Sarrera eta motibazioa

“Bizitza birtuala iduri du sekulako askatasuna dela, baina dena dago hizkuntzaren eta Estatuaren arabera mugatua. Alegia, sare sozialak, Google, horrek dena funtzionatzen du Estatuaren matrikulekin. Urruñako gatzetxoaren mobila eta Berakoarekin, ez dira ezkontzen. [...] Hari agertzen zaizkio erreferente batzuk eta neri bertze batzuk. Orduan gaude itzulipurdikatuak. Beraiek bizi dire Baionari begira arruntean eta gu bizi gara Donostira, Iruñera begira arruntean”¹. (Berako tailerra, 2024.03.01a).

Hitz hauek Mugalur ikerketa programaren² baitan eraman den tailer baten parte-hartzaile batek esan ditu. Bakoitzak mapa bat eskuratu zuen, Bortzirriak eta Xareta-Urruñak eskualdea irudikatzen zituenak, Frantziar eta Espainiar Estatuaren arteko mugarik errepresentatu gabe. Tailerraren bukaeran, mugaren errepresentazioa galdezkatzen zen: zer da muga bat zuretzat?

Lehen aipu horrek tentsio bat agerrarazten du mugaren errealtateari doakionez: alde batetik muga gabeko munduan bizitzearen ilusioa eta bestetik, muga horiek zeharkatzen dakiten tresnek duten mugen ekoizteko gaitasuna. Euskal Herriaren zatiketa administratiboak, badirudi eragiten duela urruntasunaren sentimendua erroturik dela, nahiz eta Schengen espazioaren testuinguruan, kontrola sistematikoa muga, desagertua izan. Zein heinetaraino Estatuaren arteko mugak eragina ote du euskaldunengan eta euskal mugaldeetako bizilagunengan? Zein dira mugaldeetako

¹ Aipuentzat, euskalkiak mantendu dira, lekukotasunaren ahozotasuna eta naturaltasuna mantentzeko, pertsonaren hitzei ahal bezain fidagarri egoteko asmoarekin. Aipuak, frantsesetik edo gatzeteleratik itzuli diren kasuetan, zehaztu da. Oharrik ez bada agertzen, jatorrian euskaraz erran direla esan nahi du.

² Mugalur proiektua, Euskal Herriko Unibertsitatea, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua eta Nafarroako Cederna-Garalur elkartearen arteko partaidetza da. Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen diru-laguntzarekin eraman zen burura 2023ko larrazkenetik 2024ko udazkenera.

bizipenak gaur egun Euskal Herrian? Erraz pentsatzen ahal da, kontrola sistematikoaren desagertzeak, mugaz-gaindiko harremanen garatze bat dakarrela, Iparralde eta Hegoaldearen artean. Hizkuntza, historia, aldarrikapen, bizipen amankomunak izanez, nola ez pentsatu kontrola sistematikoaren bukaerak, harat-honaten areagotzearen eragina izanen duela? Alta, biztanleen sentimendua kontrakoa da. Schengen espazioa sortu denetik, harremanak gutxituz doazenaren eta euskaldunen zatiketaren sentimenduak orokortzera buruz doaz (Bidegain, 2018).

Galdera horiei erantzuteko, mugaren antropologiaren kokapena zientifikoa azaldu ondoren, proiektuaren metodologia eta helburuak esplikatu dira. Ondoren, tailerretatik ateratako datuei eutsiz, mugaren iruditegiei buruzko analisia bat proposatu da, kontraesanak azpimarratuz.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

2.1 Mugaren antropologia

1990tik goiti, mundializazioaren garaian, mugarik gabeko mundu baten ilusioa sartzen da. Aldi berean, ez da sekula gaur baino muga gehiago izan. Hain zuzen, 1991tik, 27.000 km Estatuaren arteko muga sortzen dira (Amilhat-Szary, 2015). Horien %15a, paretak dira gaur egun (Amilhat-Szary, 2022). Kontraesan bat agertzen da: alde batetik, mugarik gabeko munduan bizitzearen sententzia eta bestetik, mugak beti eta gehiago hesten direnaren errealitatea.

Antropologiarentzat, muga, eraikuntza soziala da. Ondorioz, biztanleengan duen eraginaz haratago, biztanleek mugari egiten diotena ere begiratzen du (Chavarochette et al., 2015). “*Bottom up*” ikuspegi batekin, *borderland studies* garatzen dira (Wilson, Donnan, 2016): mugaldea aztertuz, bizipenak argitan jartzen dira. Mugaren iruditegia, baina ere bere pasatzeko edo deuseztatzeko diren joerak ikertzen dira. Muga, eraikitzen den eta beraz, deseraikitzen den prozesu bat da. Harremanean eraikitzen da, dinamikoa da (Barth, 1995). Antropologiak, muga mota desberdin guziki kontutan hartzen ditu: sozialak, sinbolikoak, hizkuntzarenak edo beste motatakoak. Era desberdinen arteko artikulazioak aztertzen ditu, muga, molde lausoan definituz, hau da “distantzia ezartzen duena hurbiltasunetan” (Arbaret-Schulz, 2002).

Ikerketa hau mugaren antropologiaren ildoan kokatzen bada, muga zer den eta nola ikertu behar den galdezkatzen saiatzen da etengabe. Hala nola, hainbat ikerleek erakusten dute nola muga itxuraz aldatu den azken hamarkadetan: “deslokalizatu” da (Amilhat-Szary, 2022), ez da gehiago bi Estatuaren arteko marraren gainean, baina izan daiteke aireportu batean adibidez. Horrez gain, hainbat ikerleek, mugak gaur egun itxura berria duela diote, puntuz osatutako sare baten forma hartzen duela eta marraren iruditegia pasatua dela (Amilhat-Szary, 2022 ; Brambilla, 2015). Muga kaleidoskopiko baten antzera begiratzea komeni da orduan, eskala guziki kontutan hartuz, Estadutik, mugaldeko biztanleetara, eta mugaren dentsitate guziki buruan ukanez (Brambilla, 2015). Horren harira, “antiAtlas des frontières” deituriko ikerle, artista eta eragileen kolektibo batek manifestu bat idatzi zuen (Parizot et al., 2014), mugen egoera salatzeke eta mugaren iruditegi berri bati buruz joateko esperimentazioak egitera gonbidatzeko. Bizipenak kontutan hartuz eta metodologia berritzaileei esker, mapa berri eta antkolonialistak osatzen ahal direla diote. Atlas-ak eragiten duen espazioaren botere goseari (Raffestin, 2019) aurre egiteko, antiAtlas baten osatzea proposatua da: ekoizten diren mapak, bizipenetan oinarritutakoak dira eta ez dira Estatuaren definitzeko marrazki bakarrik agerrarazten.

2.2 Mugalurre proiektuaren metodologia

Mugalurre proiektua, kartografia sortzailearen (Olmedo, 2021) metodologian oinarritzen da. Zazpi tailer parte-hartzaile antolatuta dira 2023ko azaroa eta 2024ko apirilaren artean: Izaban, Orbaizetan, Urepelen, Amaiur-en, Beran, Saran eta Hendaian. Frantziar eta Espainiar Estatuaren arteko mugari datxikola diren eremuak kontsideratu dira. Ez da beraz Euskal Herri osoa kontutan hartzen, baizik eta Nafarroako Pirinioen parte eta ipar-ekialdea eta Gipuzkoarentzat, Txingudi eskualdea. Lapurdi, Behe-Nafarroa eta Zuberoaren kasuan, probintzia bakoitzean, muga lerrotik berehala kokatzen zen eremu edo ibarreko biztanleriari zuzendu zaio deia. Aldi oro, mugatik bi aldeetako biztanleak gomiatu dira: deia zabala egiten zen, eremu horretan bizi

zen edozein pertsonak parte-hartu zezakeen eta ez zen lurraldearen errepresentazioa bilatzen. Deia, Mugalur proiektuaren hiru partaideen sareak erabiliz egin da, baita tailer bakoitzaren eremuari egokituz, Herriko etxeekin partaidetzan, biztanleriari helaraziz mezua, edo tokiko aurretik identifikatutako elkarte edo erakunde batekin harremanetan sartuz. Lurralde bakoitzeko prentsa idatzia zein ahozkoa kontaktatu dira ere bai. Gomita hiru hizkuntzatan zabaldu da.

Orotara, 124 pertsona hurbildu dira. Hauen bizitokiak 1. taulan zehaztuak agertzen dira. Azpimarratzekoa da, euskara gaitasuna, parte-hartzaileen artean oso altua izan dela, nahiz eta hiru hizkuntzetan komunikatu. Nola esplikatzen euskaldunak egon direla gehien bat tailerretan? Bereziki hunkitzen dituen gaia ote da? Elementurik ez dago horren ondorioztatzeko. Taldeak libreki osatu dira eta mahai bakoitzak erabaki du, zein hizkuntzatan mintzatu.

1. taula. Mugalur tailerretako parte-hartzaileen bizitokia (Iturria: autorea)

Bizitokia / Tailerrak	Nafarroa	Behe-Nafarroa	Gipuzkoa	Zuberoa	Lapuri	OROTARA
Amaiur	9	4	0	0	4	17
Bera	18	0	1	0	1	20
Hendaia	1	0	4	0	21	26
Izaba	10	0	0	2	0	12
Orbaizeta	5	3	0	0	0	8
Sara	4	0	2	0	8	14
Urepele	7	16	0	0	4	27
OROTARA	54	23	7	2	38	124

Mahai bakoitzean hamar bat pertsona eta animatzaile bat egoten zen. Honek mapak banatzen zituen parte-hartzaile bakoitzari eta kontsigna batzuk emanez, galdetzen zuen maparen osatzen joatea, bakoitzaren bizi-eremuak irudikatzeko asmoz. Maparen azpian zen leiendari segituz, eguneroko biziko tokiak agerrarazi behar ziren: lantokia, familia den gunea, aisialdi lekuak, erosketak tokiak eta abar. Gezien bidez, mugimenduaren maiztasuna erakusten zen. Ondoren, lekuekiko atxikimenduak lantzearen, izarren bidez irudikatzen ziren bereziki gustuko dituzten lekuak. Horrez gain, galdetzen zitzaion etxea bezala identifikatzen duten eremua inguratzea. Bururatzeko, mugaren noziora hurbiltzen zen, galdetuz: “zer da zuretzat muga? Zein dira zure mugak? Nola irudikatu zenezake? Mapan, marraztuz, idatziz edo nahi duzun eran eta lekuan”. Mapak osatu ondoren, mahai itzuli bat hasten zen, bakoitzak kontatzeko bere bizi eremua zein den eta ariketa horren bidez egiten duen hausnarketa.

2.3 Mugalur proiektuaren helburuak

Mugalur proiektuaren helburu nagusia, Frantziar eta Espainiar Estatuaren arteko mugaren presentziak eragindako bizipenen aniztasunaren agerian jartzea da. Muga lerrotik gertu bizi arren, batzuentzat, pareta baten antzekoa da, deus ez bailitza beste aldean, beste batzuentzat aldiz, egunerokoan bizitzen duten eremua, mugaz-gaundikoa da. Are gehiago, ez da gauza bera Txingudiko eta mendiguneetako errealitatea. Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak azpimarratu du 4.000 mugaz-gaundiko langile direla Euskal Herrian (NAEN, 2021). Beste Europako muga batzuekin konparaturik, gutti da. Ondorioztatzen da maiz, euskal mugaldeko dinamika apala dela. Proiektuak, beste motatako bizipenak badirela erakutsi nahi du, mugaldeko bizitasuna, lan mugimenduari murriztu gabe. Horrez gain, ikerketaren helburua, hausnarketa kolektiboaren eramatea da, muga kontzeptuaren deseraikitze eta Estatuaren arteko edo beste era batzuetako muga naturaltasuna zalantzan jartzeko.

3. Ikerketaren muina

Mugalur ikerketatik ateratakoa azaltzeko, mugaren iruditegia ikertzea proposatua da. Hau, tentsio gune bezala irudikatzea hautatzen da. Anne-Laure Amilhat-Szary geografoari jarraikiz, hiru kontraesan mota azpimarratzen dira (2022):


- Muga idekia eta itxiaren arteko tentsioa: filtro rola duela dio.
- Materialitatearen inguruko tentsioa, agerian dena eta ez denaren arteko joko: antzerkian bezala, taularatze joko bat dela aipatzen du.
- Denborarekiko harremanaren tentsioa: mugaren itxura zaharrak fite ahanzten baldin badira, mugak aztarnak uzten ditu kentzen baldin bada ere bai.

Laugarren tentsio bat gehitzea proposatzen da: euskaldunaren tentsioa, izateko eta existitzeko aldarrikapena eta mugarekiko atxikimenduaren artean.

3.1 Harresizko muga

Parte-hartzaile kopuru handiak, muga, kontrola gunee bat dela dio. Berako tailerrean parte-hartu duen Aitziber-ek adibidez³, gorritz irudikatzen du muga Biriatur, marra bat eginez eta idatziz: “gendarmek” (1. irudia). “Mugarik ez dela” esaten denean, ez du erran nahi Estatuen arteko muga desagertu denik, baina bai, kontrola sistematikoa. Hortaz, “muga” hitzaren giblean, lehen-lehenik kontrolaren iruditegia heldu da.

1. irudia: Aitziber-en mapa



(Iturria: Berako Mugalur tailerra, 2024.03.01a)

Ez da kasualitatea Aitziner-ek Biriatur jartzea kontrol gunee hori. Azken urteetan, usu kontrolak badira leku horretan. “Idekia” delaren iruditegia baldin bada, edozein momentutan kontrola ezarri gero, batzuei ixten zaie. Ondorioz, ez da ez idekia, ez itxia, baina filtratzen du.

Urepeleko tailerrean, Martxelok, mendian, muga ikusten duela dio: Luzaide eta Bankako artzainek hesi bat muntatu dute, bata-bestearen eremuak bereizteko. Zerko horrek Estatuen arteko muga segitzen du. Nahiz eta hor den batez ere bi eremu bereizteko eta ez Frantziar eta Espainiar Estatuen bereizketaren errepresentatzeko edo kontrol gunee bat izateko, bere irudikapenean, mugaren presentzia azpimarratzen du. Aitzpea Leizaolak azaltzen duen erara, euskal ikuspegitik hurbilago da muga hori: bi herrien edo bailaren arteko mugak, bi aldetako jendeek adosten dituztenak (2010). Hau harresi bihurtaraziz, Estatuen arteko mugari erreferentzia egiten du eta muga idekia eta itxiaren arteko tentsioa irudikatzen. Martxelok honela zioen tailerra denboran:

“Ni artzaina niz eta ezarri dut lanaren aldetik, Hegoaldearekin harremana, Luzaideko artzainekin baditugu harremanak, biziki harreman onak, ez dugu anitz ikusten elgar, baina ardiak falta ditugularik edo hek falta dituztelarik, baditugu harremanak, Europa ideki zelarik, España sartu zelaik European, 1992an egin zen zerradura bat, zeren artzainak pixkat samurtu ziren Luzaiden,

³ Izenak aldatu dira anonimotasuna mantentzeko.

gehiago han Adartza inguruan, eta egin zuten zerradura bat, Linduseraino. Dena zerratuz muga. Hor da muga. Pixka bat pena, pena haundia. Nahiz eta biziki harreman onak ditugun eta atxikitzen dute hori. Fisikoa da. Hesia da, erreberitzen dutena" (Martxelo, Urepeleko tailerra, 2022.11.17a).

Azken finean, mugak idekitzen eta ixten dira egoeren arabera eta batez ere, egiten diren hautu politikoen arabera: nor utzi pasatzera eta nor ez? Nor da desiragarria eta nor ez?

3.2 Paperezko muga

Nahiz eta mugitzeko eskubidea izan, muga administratibo bat badela behin eta berriz azpimarratu da. Cristinaren mapan, buruan irudikatzen duen bizi eremua eta muga administratiboaren arteko kontrastea ageri da. Ez du mugarik jarri eta Saran biziz, Elizondotik Baionara doan eremu batean bizi da. Etxea bezala irudikatzen du Baztan-Bidarrai eremua. Berez, eremu hau "mugaz-gaindikoa" dela erran daiteke. Baina bere mapa begiratzean, mugarik ez da azaltzen eremu horretan. Barneratua du. Esprikatzen du: familia jatorriak Baztanen ditu, haurtzaroan denbora asko iragan du bailara horretan eta gaur egun, hainbat erosketa egiten ditu han. Hala ere, muga zer den galdetzeko orduan, duda izpirik gabe, frantsesez idazten du, gorritz eta harridurazko keinuak erabiliz: "arazo administratiboak". Honela esaten du :

"Erran nahi dut gure bizi guziaz mugik gabe bizitua ga, han bizituak ga, izan larunbat-igandetan, izan vacacioneak han pasten gintuen bainan oai muga hoi gure burutan nik eztut mugik. Bainan geldiazten bazituzte, papera, papera, iduri eta, papera. Hortan nik errote, Frantziak eta Espainiak berak iten dute jendeak ez ahanztarazteko gobernu hoi. [...] Han, hemen bezala, lasai, ezta problemik fitzik, emain zaitute, baduzu behar zerbaite zure laborantza etxean eta emain zaitute erremedio hori, eta erremedio hori hemengo maraxelek errain zaitute, erremedio horrek eztuela dretxoik gure etxean ibiltzea, zentaz ezpaita Frantziko edo Iparraldeko erremedioa. Bainan erremedio hori Bordelen ina da. Bordelen inik, badaie bertze erresumeat, hango maraxelek heldu da gibelerat bainan eztugu dretxorik hango erremedioak ibiltzea. Hoi da etsenplu bat, baditut bertze milaka, badira mila" (Cristina, Sarako tailerra, 2024.03.02a).

Cristina bezala, beste hainbat pertsonak argitan jarri dute Europaren idealizazioarekiko dezeptzio bat. Arlo oso ezberdinetan frogatzen da: lan arloan adibidez, asurantzak edukitzeko orduan edo zergak ordaintzeko momentuan, muga administratiboa agertzen da. Ondorioz, mugarik ez delarik ere, agertzen ahal da momentu eta egoera eman batzuetan.

3.3 Muga gorpuztua


Muga, ahaztezina den errealtate bat izan daiteke, bortitza. Hainbat parte-hartzaileek, bizipen gogorrak izan dituztela diote. Mugaren bestaldean kokatua zegoena, eremu debekatua izan izan da batzuentzat. Kontrolaren presentziak zakarren beldur giroa gogoratzen dute eta oso gorpuztua dutela adierazten dute. Bizipen emozionala hori ez dela inoiz desagertzen diote. Hortik tiratuz, Arantxak bere esperientzia partekatzen du Hendaiaiko tailerrean: errefuxiatu politikoen alaba da, Hendaian handitu da. Berak "muga" hitza bera jasateko dituen zailtasunak adierazten ditu. Animatzaileak galdetzen duelarik muga zer den irudikatzeko, etortzen zaiona, ondokoa idaztea da: "mugak nazkatuta nauka".

Arantxak bezala, hainbat parte-hartzaileek azaltzen dute bizitzen duten kontraesana mugaren kontuarekin: mugarik ez dagoenaren ideiarekin hezi dira, Euskal Herriaren batasuna defendatu nahian. Aldi berean, muga, sufrikarioaren sinboloa da haien zat. Memoriak bizirik segitzen du. Orbaizetako tailerrean, Eneritzek azaltzen du Iparraldera joateko debekua ukan duela hainbat urtez. Orduan, mugaren ideia oso barneratua du. Orain joaten ahal da, baina oroitzen da beti muga pasatzen duela: oharra egiten dio bere buruari, debeku hori oroitzuz eta emozio berezi batekin. Mugaren pasatzea, ez da ohizko mugimendu bat beretzat.

Gorputzetan eramaten dela muga diote ikerle batzuek *borderities* nozioaren bidez (Amilhat-Szary eta Giraut, 2015): pertsonak beraiekin eramaten dute, batez ere etorkinen kasuan. Zauri bat delarik edo barneratua denean, gorputzarekin bizitzearen ideia bera bada. Ahaztezina da.

Alta, jendarte mailan azkar ahazten dira mugaren itxura zaharrak. Oso naturalizatua du jendeak oro har: marra zuzen bat mapetan ikusgai dena. Ez du beti itxura hori eduki (Amilhat-Szary, 2022). Tailerretan atera da muga naturalizatzeko jarrera badela, muga “fisikoa” edo “naturala” aipatuz. Pierrek erabakitzen du “muga naturala” marraztea bere mapan (2. irudia): nahiz eta mugarik ez den gehiago, muga “naturala” badela dio, mendiari edo erliebeari erreferentzia eginez. Hau oztopo bezala irudikatzen du.

2. irudia: Pierren mapa



(Iturria: Urepeleko Mugalur tailerra, 2023.11.17a)

Zientzia sozialetatik begiraturaz, kontraesana da, muga bat beti eraikuntza soziala delako eta muga naturalik ez delako (Amilhat-Szary, 2022). Mugak lotu dira erliebeari, naturalizatu dira, mugaren itxura egonkorra barneratzeko eta horrekin, Estatu-nazioaren ideia (Raffestin, 2019). Europar Batasuna eta mugimendu askatasunaren aroan, muga, naturala bezala ikusteak, erakusten du zein barneratua den itxura hori. Era berean, Euskal Herriaren lurraldea irudikatzen diren mugak galdezkatu daitezke: hauek ere eraikuntza baten emaitzak dira. Euskaldunen ezagupen eskasaren egoeran oinarrituz, mugaren ideia desiragarri bat asmatzeko bidea marrazteko aukera ba ote da, mugaren naturaltasunetik haratago?

3.4 Euskaldunen mugak


Bururatzeko, tentsio mota gehigarri bat identifikatu da Mugalur tailerren ostean: euskaldun bezala bizitzen dena. Alde batetik, euskarak, muga deuseztatzea ekar dezake, mugaren bi aldeetako hizkuntza delako. Bestetik, euskaraz aritzeak etengabe hizkuntza mugak dakartza, distantzia bat ezarriz euskal hitzuna ez denarekin. Hendaiako tailerrean, euskaraz hitz egiten hasi ziren parte-hartzaileak mahai batean, batek hitza hartu zuen arte:

“Gaur adibidez baztertua naiz. Ulertzen dut egoera, baina hara, baztertua naiz, sentitzen dut, sentitzen dut hemen enetzat badela muga bat” (Felisa, Hendaiako tailerra, 2024.04.11, frantsesetik itzulia).

Agertzen den tentsioa, harreman mailakoa da. Muga gabe egiteak muga berriak dakartza, beste era batetakoak. Hizkuntzaren mugak maiz ateratzen dira tailerretan. Oro har, muga deuseztatzea, mugarik ez dela esatea, manera bat da Euskal Herri bat eta euskaldunen presentzia mahai gainean jartzeko. Batez ere, bakoitzak etxea kontsideratzen duen eremua galdegin delarik

adieraztea, hainbat parte-hartzaileek Euskal Herriaren perimetroa inguratu dute. Era berean, muga eza edo nahi eza azpimarratu da behin eta berriz, inposatutako eta dominazio harreman baten ukatze aldera. Joaneke argi uzten du ideia hori bere mapan azalduz zer den muga beretzat (3. irudia): nazio baten ukatzea. Mugak, tentsioaren esperientzia kristalizatzen du bere baitan.

3. irudia: Joanen mapa



(Iturria: Izabako Mugalur tailerra, 2023.11.25a)

Espainiar et Frantziar Estatuaren arteko muga ukatzen baldin bada, Euskal Herriaren eremua eta ondorioz, mugak, naturalizat kontsideratzen dira, espazioarekiko den botere harremana zalantzan jarri gabe. Muga kontzeptua ez da galdezkatzen. Zeharkatzearen aukera defendatuz, mugari lotura bat azpimarratzen da ere bai. Hendaiaiko tailerrean, Aitor, euskalduna da eta euskaraz lan egiten du. Honela azaltzen du frantsesez hitz egitea erabaki duen mahai batean:

“Uste dut zinez mugan bizi naizen norbait naizela, muga lurralde bezala hartuta, kontaktu guneak maite dituen pertsona [...] onartzen dut hemen den muga hori baina beti hausten dut. Ene biziko helburuetako bat muga horren haustea da preseski” (Aitor, Hendaiaiko tailerra, 2024.04.11, frantsesetik itzulua).

4. Ondorioak

Muga etengabeko kontraesana bezala bizitzen da oro har Frantziar Estatua, Espainiar Estatuarekiko bereizten duen muga lerrotik hurbileko euskal eremuetan. Etengabeko mugimendu batean gorpuzten da: alde batetik, deuseztatze nahikeria eta joera agertzen dira eta bestetik, mugaren presentziaren bizipena. Muga ukatzeak, agertzea eragiten balu bezala.

Lau tentsio identifikatu dira Mugalur tailerrean parte-hartu dutenen irudikapenetan oinarrituz. Lehenik, muga, harresiaren ideari eta kontrol guneari lotzen zaio, bere filtro funtzioa azpimarratuz. Bigarrenik, Europar Batasunaren baitan mugitzeko askatasunarekin, mugarik gabe bizitzaren ilusioaren parean, honen zeharkatzeko pizu administratiboa agertu da: muga ikusten ez baldin bada ere, hor dagoela oroitaraziz. Hirugarrenik, iraganeko minak ezin ahaztuz, zauria bezala, euskaldun batzuek gorputzetan daramaten errealitatea baldin bada, oso naturalizatua agertzen da ere bai, inoiz galdezkatu gabe bere marra forma, Euskal Herriarenak barne. Azkenik, euskaldun bezala, ezagupen eskasarekin bizitzen den tentsioa agertu da: hizkuntza ohiturekin sortzen diren frustrazio eta baztertze sentimenduek, muga sinboliko eta sozialak marrazten dituzte. Alta, euskara, muga zeharkatzeko baliabidea ere bada edo hobeto erranik, muga hausteko aukera, hau, zalantzan jarri gabe, gainditzearen gaitasuna azpimarratuz.

5. Etorkizunerako planteatzeko den norabidea

Tailerretatik ateratako datuekin, mugaldeetako errealitate bat argitan jartzen bada, ikerketa honek ez du baitezpada lurraldearen argazkia egiten lortzen. Aurreikusten da beraz lortutako datuak kontrastatzea parte-hartzaile berriekin. Pertsona gutien lortu den lekuetara iritsiz, publiko zabalago bat ukituz eta proiektua ezagutaraziz edo hedatuz. Horrez gain, mugaldeetako biztanleekin, mugaren deseraikuntza prozesuetan lan egitea aurreikusten da, modu parte-hartzaile eta ikerketa ekintzailea probestuz. Mugaren iruditegi berri baten lanketan aritzea aipatzen da, batez ere ikerle, sortzaile eta eragile desberdinen arteko solas guneak sortuz.

6. Erreferentziak

- Amilhat Szary, A.-L. (2015). *Qu'est-ce qu'une frontière aujourd'hui ?*. Presses Universitaires de France, Parise.
- Amilhat Szary, A.-L. (2022). *Géopolitique des frontières. Découper la terre, imposer une vision du monde*. Le Cavalier Bleu, Parise.
- Arbaret Schulz, C. (2002). Les villes européennes, attracteurs étranges de formes frontalières nouvelles, in B. Reitel, et al (arg.), *Villes et frontières*, Anthropos-Economica, Villes kolekzioa, 213-230.
- Barth, F. (1995). Les groupes ethniques et leurs frontières, in P. Poutignat & J. Streiff-Fenart (arg.), (2012), *Théories de l'ethnicité*, 205-249.
- Bidegain, E. (2018). *Lurraldea eta herria*, Pamiela, Iruña.
- Brambilla, C. (2015). Exploring the Critical Potential of the Borderscapes Concept. *Geopolitics*, 20(1), 14-34. <https://doi.org/10.1080/14650045.2014.884561>
- Chavarochette, C., Demanget, M., & Givre, O. (arg.). (2015). *Faire frontière(s). Raisons politiques et usages symboliques*. Karthala, Parise.
- Giraut, F. eta Amilhat-Szary, A.-L. (arg.). (2015). *Borderities and the Politics of Contemporary Mobile Borders*. Palgrave Macmillan, Basingstoke.
- Leizaola Egaña, A. (2010). *Muga: Frontière, identité et territoire au Pays basque* [Ethnologian Doktoregotza Tesia]. Paris 10, Parise.
- LLET, Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea. (2021). *LLET Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen Plan Estrategikoa 2021-2027*. https://www.euroregion-naen.eu/wp-content/uploads/2019/12/PS_EUSK_site_.pdf
- Olmedo, E. (2021). À la croisée de l'art et de la science : la cartographie sensible comme dispositif de recherche-création, *Mappemonde*, 130. <http://journals.openedition.org/mappemonde/5346>.
- Parizot, C., Amilhat Szary, A.-L., Popescu, G., Arvers, I., Cantens, T., Cristofol, J., Mai, N., Moll, J., & Vion, A. (2014). The antiAtlas of Borders, A Manifesto. *Journal of Borderlands Studies*, 29(4), 503. <https://doi.org/10.1080/08865655.2014.983302>
- Raffestin, C. (2019, [1980]). *Pour une géographie du pouvoir*. ENS Editions, Lyon.
- Wilson, T. M., & Donnan, H. (arg.). (2016). *A Companion to Border Studies*. Wiley Blackwell, AEB.

7. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak Garapen Kontseilua, Cederna-Garalur elkarte eta Euskal Herriko Unibertsitateari, beren partaidetzaren bidez gauzatu delako proiektua eta NAEN Euroeskualdeari proiektua diruztaturik. Tailerretan parte-hartu duten biztanle guziak, Herriko etxe edo egitura desberdinetatik komunikazioan lagundu dutenak, teknikari ezberdinak, lotu diren artista-sortzaileak eta murgildu diren antropologoak eskertzen dira. Bestalde, Mugalur proiektuak segitzen du. Berriak eta edukiak webgunean aurkitu daitezke⁵.

⁵ Proiektuaren webgunera sarbidea: <https://www.mugalur.eus/>